

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko uztailaren 25a. IX. urtea. 2.390. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Hondakinak sailkatzea «denon ardura» dela esan du udal gobernuak

Tolosako azken osoko bilkuran, Bildu eta Aralarrek aurkeztutako mozioa onartu dute; 2016rako %85a gaika bildu nahi dute **03**


**Xabier Perurena** Antzezlea eta zuzendaria

## «Film bat lau egunetan grabatzea ia ezinezkoa da»

‘Parle vu euskara’ lana egin du leitzarrak; grabaketa bukatuta, muntaketarekin ari dira **05**

## Laket taldeak egin du Tolosako Izaskun auzoko jaietako aurtengo abestia

Festak irailaren 7an hasi eta 9an amaituko dira; haurrentzat ekitaldi gehiago antolatu dituzte **02**



→ **Jaien hasiera jendetsua.** Hasi dira Villabonako Santio jaiak. Malkar taldeak bota zuen suzeria, eta ondoren hasi zen jaiak iraunkorrak txarangaren doinuekin. Gaur ere ez da jai girorik faltako, Santio eguna baita; diana izango da, Gorriti eta bere animalien ikuskizuna, erraldoiak... eta nola ez, soka dantza ikusteko aukera ere izango da. **07**

## Udalak zazpi lokal ditu Merkat egitasmoan eskaintzeko

Tolosa Merkat programa bigarren fasera iritsi da; helburua merkataritza jarduera biziberritzea da, horretarako laguntzak emanaz **02**



Merkat egitasmoaren bigarren fasearen aurkezpena egin dute. GORKA ESTRADA

Osteguna 26. Villabonako

### IRU ALDETA

tabernan  
23:00etatik aurrera

## SOUND SYSTEM GAUA

Joanne Highland  
Monsieur Le Crepe  
Xabi Solano  
DZ

# Haurrak izango dira protagonista aurten, Izaskun auzoko jaietan

Laket taldeak egin du aurtengo jaietako abestia; irailaren 7an kontzertua eskainiko dute Sputnik plazan

## Izteia Urkizu

«Festak ahalik eta jende gehienarentzat» izateko helburuz, garrantzia berezia eman diote aurten haur eta gaztetxoek. Izaskun auzoko festa batzordeko kideek. Horrela beraz, egitarauan zenbait berrikuntza izango dira, datorren irailaren 7tik 9ra bitarte ospatuko dituzten jaietan.

Duela sei urte zenbait gazte auzoko jaiak berreskuratzeko lanetan hasi zirenez geroztik, egitaraua osatuz eta betez joan izan dira Izaskun auzoko jaien antolatzaileak. Aurten ere, bi berrikuntza txertatu dituzte egitarauan: haurrei eskainitako jarduerak eta tortilla lehiaketa.

Jaien aurkezpenean, Garazi Altuna, Urtzi Gorostiaga eta Iñaki Lopeteggi antolatzaileak izan ziren, eta auzoko jaiak ahalik eta jende gehienari eskaintzea helburuetako bat dela argi utzi zuten. Horri, aurten batelena estropadarik ezin antolatu izana gehitu behar zaio: «Azken unera arte erabaki hau saihesten saiatu garen arren, ez dugu estropadarik ez egitea beste irtenbiderik ikusi, aurreikusitako dugun parte hartze eskasa medio».

Horrela beraz, haurrei eskainiko diete larunbat goiza, jolasekin eta marrazki erraldoiarekin. Igandean, berriz, Poxpolo eta Konpainia pailazoaren emanaldia izango da gaztetxoentzat.

Aurtengo bigarren berrikuntza, igandeko egitarauari eman nahi izan dioten bultzada izan da:

tortilla lehiaketa antolatu dute goizerako. Parte hartzaileek tortillak etxetik eginda ekarri behar dituzte, eta epaimahaiaren erabakiaren ondoren, zahagi ardoarekin tortilla guztiak dastatu dituzte.

Jaietako jarduerarik «kuttunenetakoa» ez da falta izango datorren irailean: danborrada. Urteroko poteoaren ondoren, auzoko elkarteetan bazkalduko dute parte hartzaileek, eta Bonberenea Txarangarekin izango da danborrada 23:00ak inguruan.

Danborradan parte hartu nahi duen edonork, Emendek, Arsenal eta Izaskun elkarteetan, nahiz Denak tabernan eman beharko du izena.

Era berean, auzo bazkarirako txartelak ere auzoko taberna nahiz dendetan eskuratzeko aukera izango dira. Larunbat eguerdian izango da bazkaria, Izaskun plazan.

## Laket-en abestia festetarako

Laket erromeria taldeak egin du, 2012ko Izaskun auzoko jaietako abestia.

Hain zuzen ere, irailaren 7ko danborradaren ondoren izango diren kontzertuan parte hartuko du taldeak, Kantaflor-ekin batera. Bertan estrainekez joko dute jaietako abestia, eta aurreko auzoko festetako abestien gisa berean, Bonberenea grabatu dute kantua.

Musika emanaldiek Izaskungo auzoko jaietan duten garrantziaren lekuko, aurtengo jaietako «ekitaldi nagusia» larunbat gaueko izango dela aipatu zuten antolatzaileek: «Euskal Herriko goi mailako hiru talde izango dira Sputnik plazan: Napoka Band, Willis Drummond eta Anai Arrebak».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Garazi Altuna, Urtzi Gorostiaga eta Iñaki Lopeteggi, jaien aurkezpenean. I. URKIZU

## ↓ Izaskun auzoko jaiak 2012

### IRAILAK 7, OSTIRALA

- **18:00.** Txupinazoa eta txokolate jatea. Ondoren, buruhandiak irtengo dira.
- **19:30.** Trikipoteoa abiatuko da txosnatik, Albizurtarren eskutik.
- **20:30.** Danborradako afaria.
- **22:45.** Danborrada Bonberenea Txarangarekin.
- **00:00.** Kontzertuak Sputnik plazan: Kantaflor eta Laket taldeak.

### IRAILAK 8, LARUNBATA

- **11:00.** Haur jolasak eta marrazki erraldoia.
- **14:00.** Auzo bazkaria izango da, txarangarekin, Izaskun plazan.
- **19:00.** Sagardo dastatzea pintxoekin, Izaskun plazan.
- **21:00.** Zahagi ardoa Izaskun plazan.
- **23:00.** Kontzertuak Sputnik plazan: Napoka Band, Willis Drummond eta Anai Arrebak.

### IRAILAK 9, IGANDEA

- **09:00.** Diana, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.
- **12:00.** Toka Txapelketa.
- **13:00.** Tortilla Txapelketa.
- **14:00.** Zahagi ardoa, Izaskun plazan.
- **17:00.** *Izaskun auzoko Mus Txapelketa 2012*, Izaskun plazan.
- **17:30.** Pailazoaren emanaldia gaztetxoentzat: Poxpolo eta Konpainia.

# Tolosa Merkat egitasmorako ideien lehiaketa abiarazi dute

Martxoan proiektua aurkeztu zuten geroztik, zazpi lokal eskuratu ditu udalak

## I. Urkizu

Pasa den martxoan Tolosa & Co elkarteak eta Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, aurkeztutako Tolosa Merkat egitasmoa bigarren fasera iritsi da, eta abian jarri dute ideien lehiaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindaria den proiektu hau, merkataritza jardueretatik kanpo daude lokalak biziberritzeko, eta krisi garaian enplegua sustatzeko helburuz sortu zen, eta hutsik zeuden lokalak eskuratzeko izan da udalaren lehen egitekoa, hauek ondoren alokairuan uzteko.

Momentuz, zazpi dira lortu dituzten lokalak: 4 Kale Nagusian



Ibai Iriarte eta Fermin Montilla, agerraldian. GORKA ESTRADA

daude, eta beste hirurak, Foruen etorbidean, Laskurain kalean eta Lizardi plazan.

## Ideiak aurkezteko garaia

Egitasmoaren bigarren fasean, ekintzaileek beren proposamenak aurkeztu beharko dituzte; merkataritzaren, elikagaien nahiz arte birziklapenaren sektorekoak izan daitezke.

Lokalak esleitzeko, hainbat irizpide kontuan hartuko dituzte:

originaltasuna eta berrikuntza, jarduera martxan jartzeko aurreikusitako inbertsioa, proiektuak sortuko dituen lanpostu kopurua eta udalari ordian du beharreko errenta handitzeko eskaintza, besteak beste.

Datorren irailaren 20ra bitarte aurkeztu ahal izango dira Tolosa Merkat-eko proposamenak, eta informazio gehiago nahi duen edonork, [www.tolosamerkat.com](http://www.tolosamerkat.com) webgunera jo dezake.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Bilduk eta Aralarrek 2016rako hondakinen %85 gaika biltzea helburu duen sistema ezarriko dute

Bilketa sistema eredu jakin bat ez dute zehaztu; proposamena enpresa batek egin dezala esan dute

**Imanol Garcia Landa**

Tolosako azken osoko bilkuran hiri hondakinen gaia jorratu dute eta Bilduk eta Aralarrek onartutako mozioan helburu jakin batzuk bete behar dituen biltza sistema ezarriko dela zehaztu dute. Batetik, «hondakin sortzailearen erantzukizuna ezinbestekoa denez», hondakinak sailketa eta kanporatzea, «borondatezko ekintza baino, herritar guztion ardura eta betebeharra» izango dela dio mozioak, eta, bestetik, gaika bilduko diren hondakin kopurua zenbatekoa nahi den izatea zehaztu du: «2014. urtearen bukaeran, gutxienez, hondakinen %70 gaika bilduko da, helburua delarik 2016 urterako %85 gaika biltzea». 2013ko bukaera baino lehen Tolosako udalerrian gaika bilduko diren hondakin motak zehaztu ditu testuak: papera, ontzi arinak eta plastikoak, beira, materia organikoak eta sukaldeko oliak.

Onartutako mozioaren arabera, «hautatzen den biltza ereduak, edozein dela ere, betebeharrak horri erantzun beharko dio eta hondakinak nahastuta kanporatzea eragotziko du». Bestalde, hondakinak egoki sailkatzen direla bermatzeko, ikuskaritza-sistema bat izango duela zehaztu du mozioak, eta biltza sistema «etengabeko hobekuntza prozesu baten bidez doitzeko eta hobetzeko modukoa» izango dela. Izan ere, helburuak azaldu badira ere, ez da biltza mota nolako izango den zehaztu. Bilduk eta Aralarrek onartutako testuak dioenez, «biltza eredu berriaren proposamena Tolosaldeko Mankomunitatearekin elkarlanean egingo da». Horretarako, «hondakinen kudeaketan aditua den eta Gipuzkoan hiri hondakinen kudeaketan interesik ez duen enpresa bati» eskatuko zaio proposatu dezala finkatutako ezaugarriak betetzen dituen biltza eredu.

Proposatutako biltza ereduak ezartzeko erabakia osoko bilkura hartuko duela zehaztu du mozioak puntuetako batean. Hurrengoan, «hondakinen kudeaketa egokirako lehen eragile nagusia herritarra da eta ondorioz, bidea herritarrekin batera egin behar da», dio mozioak, eta gaineratu: «Herritarrek parte hartze prozesuaren bidez prozesaturiko ereduaren inguruan era-



Bilduko eta Aralarrek ordetzariak hondakinei buruz eurek aurkeztutako mozioa onartzen, herenegun arratsaldean egindako osoko bilkuran. I.G.L.

bakitzeko aukera bermatuko da». Horrez gain, udalak «Tolosa zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean etengabeko urratsak» emango dituela zehaztu du testuak.

EAJk eta PSE-EEK mozio horren aurka bozkatu dute, eta alderdi jeltzaleak aurkeztutakoaren alde egin dute. Mozio hori ez da aurrera atera Bilduren eta Aralarren aurkako botoengatik. EAJren mozioak bosgarren edukiontzia alde egin du. «Edukiontzien bidez hondakinen biltza badu oraindik inplementagarriak zaizkion neurri ezberdinen bidez beste edozein sistemak lortu ditzaken emaitzak lortzeko aukera garbia», dio testuak. Helburu hauek zehaztu ditu: «Gaikako biltza %65a lortzea izango da 2018rako eta %75a 2020rako Gipuzkoako Foru Aldundiak dioen eran». EAJk bere apustua zehaztu du: «Pertsonen konfiantza oinarritutako den sistema bat, eraginkorra izango dena, garbia izango dena, estetikoa izango dena eta ekonomikoki bideragarria izango dena».

**«Denok birziklapenaren alde»** Eztabaidarako tardean Aralarrek Inaki Irazabalbeitiak hitz egin zuen lehenik, eta osoko bilkuran aurretik izandako bileretan akordioak ez lortu izanaz kezatu zuen: «Zurrumbilo politikoaren erdian dago gaia eta hori da adostasuna ez lortzeko arazoa». Osoko bilkura horretan ez zela hartuko erabiliko den sistema mota zehaztu zuen: «Hori adituek proposatuko dute».

PSE-EEko Jose Ignacio Asensioek Bilduren eta Aralarren mozioan ez zela atez atekoa aipatzen,

baina testuan zehazten diren ezaugarriak biltza sistema horrekin bat egin dutela esan zuen. «Iragarritako inposaketa baten kronikaren aurrean gaude», gaineratu zuen Asensio. Tolosa Txukunek jasotako sinadurak ekarri zituen gogora, eta bosgarren edukiontzia alde egin zuen.

**Zero zabor lurraldea bihurtzeko «urratsak emango direla» dio onartutako mozioak**

**2020rako gaikako biltza %75a lortzeko helburua zehaztu du EAJk bere mozioan**

EAJren aldetik Olatz Peonek hitz egin zuen, eta «ahalik eta gehien birziklatzearen alde» dardela esan zuen. Gaiaren inguruan politikariak «itxura kaxkarrak» ematen ari direla gaineratu zuen. «Bosgarren edukiontzia alde egin emaitza onak lortu ditzakegu», esan zuen, eta Bilduk eta Aralarrek proposatutakoaren bideragarritasun ekonomikoa eta soziala erakustea falta zela adierazi zuen. Gipuzkoan «bosgarren edukiontzia mar txan ez duen eskualde bakarra» Tolosaldea dela ekarri zuen gogora Peonek.

Bildutik, lehenbizi Hasier De los Rioser hitz egin zuen, «denok berdinarekin alde gaude, baina ez gaude ados metodoan» esanez. «Denok gaude birziklapenaren alde eta tolosarren konfiantza dugu biltza ondo egingo dela», gaineratu zuen. Aldaketak

zalantzak ekartzen dituela eta herritarrei esfortzu bat eskatuko zaiela gaineratu zuen.

Ibai Iriarte alkateak ere hitza hartu zuen eta hondakinen gaiaren inguruan «hainbeste buelta» ematea «lotsa» ematen ziola esan zuen. Bestalde, gai hori «Bilduri izena kentzeko» erabili dela esan zuen: «Ezin da kriminalizatu gai hori arma bezala erabili». Horrez gain, Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako mozioak «anbizio handiagoa» duela esan zuen. Eztabaida askoz sakonagoa dela esan zuen Iriartek: «Kontsumo ereduak dago auzian. Mundu mugatu batean bizi gara, eta ezin dugu mugagabeko hazkuntza biltzatu».

Osoko bilkura joan zen herritarren artean Tolosa Zero Zabor eta Tolosa Txukun taldeak izan ziren. Tolosa Zero Zaborrek bat egin zuen Bilduren eta Aralarren mozioarekin. «Egoera honek aldaketari ez diegu beldurrik izan behar, gure ohituretan aldaketa txikiak arazo ugari eta larriren irtenbidea izan baitaitezke», adierazi zuen taldeak. Zero Zabor helburua lortzeko bidean lehen-tasuna «hondakinen murrizketak» duela esan zuen, «ondoren berrerabilpenak, eta segidan birziklapenak». Helburu horiek maila berean ezin direla parekatu gaineratu zuen.

Tolosa Txukun plataformak esan zuenez, hondakinen gaiari buruz aritzeko «teknikarik daude, eta alde bakoitzak ekarri ditzake bereak». Biltza sistema zehazteko osatzen den lan taldean parte hartzeko nahia azaldu zuen. Bestalde, prest azaldu zen jaso dituzten sinadura kopurua

erabiltzea herri kontsulta bat eskatzeko.

Osoko bilkuran hondakinekin zerikusia zuen beste mozio bat eztabaidatu zen, EAJk aurkeztutakoa, eskualdeko harrobi eta meategiak «estabilizatutako zaborfardoan biltzei kontrolatu gisa» ez erabiltzeko eskatu zuena. Horrez gain, udalerrian dauden harrobi eta meategi guztiak barneratu nahiko lituzkeen Lurraldeko Plan Sektorialari «dagozkion alegazio guztiak egiteko prestatzea» eskatzen zaio testuan udalari, «Tolosan hondakinen isurketa eta lurperatzea ekiditea helburu izanik». Mozioa ez zen onartu Bilduren eta Aralarren aurkako botoekin. EAJz gain, PSE-EEK ere testuaren alde bozkatu zuen.

**Udal langileen hitzarmena**

Beste puntuetako bat udal gobernuaren eta udal langileen artean adostutako lan hitzarmenaren berri ematea eta horri udalbatzak bere konpromisoa azaltzea eskatzen zuena izan zen. Lan hitzarmenean adostutakoak ezin dira egun praktikan jarri Espainiako Gobernuak hartutako erabakien ondoren, eta beraz, aukera dagoenean hartutako erabakiak mar txan jarrezko konpromisoa eskatu zen osoko bilkuran.

Bilduk eta Aralarrek aldeko jarrera azaldu zuten. Bere aldetik, EAJk «beti langileen alde» egingo duela azaldu zuen, eta jarrera azaldu aurretik aztertu nahi duela azaldu zuen. Bere aldetik, PSE-EEK Espainiako Gobernuak hartutako erabakien aurka zegoela esan zuen, eta jarrera agertzeko ere hitzarmena aurretik aztertu nahi zuela esan zuen.

# Bizikletak alokatzeko aukera izango da Plazaolako udako berrikuntzen artean

Uda Oihanaren Bihotzean programa aurkeztu du Leitzan ere aritzen den Plazaolako Partzuergoak

**Eneritz Maiz**

Plazaola Partzuergoak udako oporretan ikasiz, gozatzeko bisita gidatuak eta hainbat ekitaldi antolatu ditu. 2012ko Uda, Oihanaren Bihotzean lelopean aurkeztu dute. Berrikuntzen artean, bizikleten alokairua dago, itzulerako garraioarekin. Guztira hamar eskaintza jarri dituzte martxan uda honetarako.

Lekunberriko Andoainerako natur bideak 44 kilometro luze ditu, eta tartean geratzen da Leitzaldea herria. Plazaola partzuergoak, etxetik bizikleta eraman beharrik izan gabe alokatzeko aukera eskainiko du. Lekunberriko Plazaolako Kantinan jarri dituzte bizikletak, eta baita itzulerako garraio zerbitzua ere. Itzulerako bidea bizikletan egin nahi ez duenak, itzulerako garraio alokatu dezake. Gerturatzen denak, bizikletaz, Lekunberriko abiatuta Leitzaraino edo Andoaineraino joateko aukera izango du.

Bizikleten alokairua bi ordu bost euro ordaindu beharko da; egun erdia 8 euro eta egun osoa 12 euro. Garraio eskatu ahal izateko alde aurretik egin beharko da eskaria, 948 604 644 edo 699 383 287 telefono zenbakietara deituz edota [kantinaplazaola@gmail.com](mailto:kantinaplazaola@gmail.com) helbide elektronikora idatziz. Taldea hiru lagunetik gorakoa izan beharko da. Leitzatik itzulerako garraioan itzultzeak 8 euroko kos-



Bizikletak Lekunberriko Kantinan jarri dituzte. HITZA

tua izango du, eta Andoaindik itzultzea 12 euro ordaindu beharko da.

## Arro baserria ezagutzuz

Beste eskaintzen artean, Kristina Saralegiren Arro baserria bisitatzeko aukera dago. Bertan hazten duen hazienda ezagutzeko aukera dago: behorrak, astoak, antzarak, ahateak, txerriak, ardiak,.... eta talogintza tailerra eta horien dastatzea egin daiteke.

Aldez aurretik deitu beharko du Arro baserriara joan nahi duenak, eta 10 euro ordaindu beharko da. Harremanetan jartzeko 610 378 543 telefono zenbakira deituz edo [kristinasaralegi2009@hotmail.com](mailto:kristinasaralegi2009@hotmail.com) helbide elektronikora idatziz.

Gainera, Lekunberriko Alde Zaharra, Plazaolako natur bidea zaldi gurditxoan ezagutzeko aukera, Ezkurdi Erlezaintza museoa, Beigorri Abentura parkea, Mendukilo koba, Bikain Gaztandegia, Mirua natur jarduerak eta Lacture interpretazio zentroa

ezagutu daitezke Plazaola Partzuergoaren eskutik.

Bisita guztiak alde aurretik deituta egingo dira. Ekitaldi bakoitzak harremanetarako kontaktua zehaztuta ditu. Bisita egiteko gutxieneko taldea eta haurren gehieneko adina konfiantza egin beharko dira. Informazio gehiagorako edota edozein zalantza argitzeko, 943 507 205 telefono zenbakira deituz, [plazaola@plazaola.org](mailto:plazaola@plazaola.org) helbide elektronikora idatziz edota [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) webgunean begiratzuz lortu daiteke

## Irailetik aurrera

Udako eskaintzaz gain irailetik aurrera Areso eta Leitzan ekitaldiak izango direla ekarri dute gogora. Irailaren 2an, Aresoko V. Mendi Martxa izango da, eta irailaren 9an, Leitzan, Talo eguna ospatuko dute. Irailaren 16an, berriz, Plazaolako natur bidetik berrera Mendi Bizikletaz XI. Martxa eta VI. Maratoi erdia izango dira.

# Film laburrak aurkezteko azken egunak, Atekabeltzen

Bihar bukatuko da Leitzako lehiaketan lanak aurkezteko epea; ostiralean ikusi ahal izango dira lanak

dute. Lanak DVD batean eraman beharko dira, eta nahitaezkoa izango da mov formatuan aurkeztea.

DVDarekin batera, taldearen izena, partaideen izen abizenak eta ahaztu gabe, film laburraren izena eman beharko dira. Lanak Atekabeltz Gaztetxearen gutunontzian entregatu beharko dira.

Behin lan guztiak jasota, hilaren 27an, ostiralean, III. Laburmetraien Lehiaketako bideoak ikusteko aukera izango da, 22:30etik aurrera. Film laburrak ikusi ostean, sari banaketa ere egingo dute. Bestalde, gaur, Udaberria zerrailaren bestaldean dokumental proiektzioa izango da, 19:30ean, Gaztetxean.

**E. Maiz** Leitzaldea

Leitzako Atekabeltz Gaztetxeak III. Laburmetraien Lehiaketa antolatuta du, eta bihar, hilak 26, lanak aurkezteko azken eguna da.

Gaia librea denez, film laburra egiteko norberak nahi duen gaia aukera dezake. Talde bakoitzak gehienez ere hiru lan aurkeztu ditzake, eta hamabost minutu baino laburragoak izan beharko

## Irudia > Areso / Leaburu



# Zortzi urte luzatu diote kartzela zigorra Manex Castorri

Lazkaoko PSE-EEren egoitzaren kontrako atentatuagatik bederatzirteko hamazazpira luzatu diote zigorra

**Erredakzioa** Amasa-Villabona

Espainiako Auzitegi Gorenak 9 urtetik 17ra luzatu dio kartzela zigorra Manex Castro Zabaletari, Lazkaoko PSE-EEren egoitzaren kontrako atentatuagatik.

Auzitegi Gorenak talde terroristako kide izateagatik eta lehergaiak edukitzeagatik bederatzirteko kartzela zigorra ezarri zion, baina uztailaren 11n egindako epaiketan epailak beste zortzi urteko kartzela ezarri zion, atentatuarekin «triskantza eragiteagatik».

Lehen epaiketan atzera bota zuen triskantzak eragiteagatik zigorra jartzeko aukerari, «lehergaiak ikusten zen toki batean jarri zuelako eta telefonoz abisua eman zuelako». Orain, berriz,

«ziurtatuta geratu da pertsonak zauritzeko arriskua egon zela».

Gertakariak 2009ko otsailaren 23ko goizaldean gertatu ziren. Manex Castro billabonatarak eta beste bi pertsonak 8 eta 10 kilo lehergaiez betetako motxila PSE-EEren egoitzaren kanpoaldean jarri zuten, eta leherketak hainbat kalte eragin zituen sozialisten egoitzan.

Beste hainbat ekintza leporatzen zaizkio, eta 382 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen Auzitegi Nazionalak, iaz.

## AUZOLANEAN GARBITUZ

Aresoko Udalak herritarrei auzolanerako deia egin zien, eta Matxain erreka eta bere ingurua garbitzea izan zuten xede, larunbatean. Udalak egindako deiari bederatzirteko lagunek erantzun zieten. Zabor ugari bildu zuten errekatik. Leaburun, berriz, 12 lagun bildu ziren Leaburuko eta Txaramako bideak garbitzeko. «Oso giro onean» burutu zuten auzolana, eta guztiak prest agertu ziren hurrengoan ere parte hartzeko, «herritarrek erabiltzen dituzten bideak izanik, guztien artean garbitzea oso ondo dagoelako». HITZA

**Xabier Perurena** ◊ Antzezlea eta zuzendaria

Aktore eta aurkezle lanetan ari da Xabier Perurena leitzarra, eta film bat egitera ere animatu da, 'Parle vu euskara' antzezlanaren erabiliz; grabaketa egin du lau egunetan, eta orain muntatzea geratzen zaio.

## «Filma egitea erronka da niretzat, ez hainbeste gero izan dezakeen bidea»

**Iñigo Terradillos** Leitza

Harategian, *Goenkale* telesaila, *Goenkale* antzerkian, *Yes we jai* saioan, Peru-Harri museoa, eta hori guztia gutxi ez, eta film bat zuzentzen ari da Xabier Perurena (Leitza, 1987). Lau egunetan egin ditu *Parle vu euskara* lanaren grabazioak, «oso gustura» geratu da, eta orain muntaketa lanei ekingo dio.

### Nola da posible zinemaz ezer jakin gabe film bat grabatzen hastea?

Azken sei hilabeteetan, buru-belarrari ari naiz informatzen, nire kabuz ikasten, film bat nola egiten den. Astegunetan lan ugari izaten dudanez, asteburuak kameraren atzeko lana ikasten ari naiz. Eta, nire burua prest ikusi nuenean, *Parle vu euskara* antzezlanaren filmera egokitzea aukera polita iruditzen zaidan.

### Zer kontatzen du?

Langarreta izeneko fikziozkoa den herrikoa den mutil xelebre baten gorabeherak kontatzen ditu. Protagonista bertako turismo bulegoko aldi baterako langilea da. 1992an gertatu zen istorioa. Turismo bulegotik igarotzen diren pertsonen makina bat xelebrekeri izango ditu, baita Interneteko bere maisuarekin ere. Halaber, maitasun istorio bat ere izango du. Komediazko filma da.

### Film laburrekin saiatu ordez, film luzea egitera ausartu zara.

Lan handia izango zela banekien arren, une honetan film laburra baino, luzea grabatzea errazagoa zela ikusi nuen. Guztia turismo bulego batean oinarrituta dago. Leitzako turismo bulegoan pentsatu nuen, eta zera ikusi nuen, benetako plato batean bezala argiak sabaian jarri gero, goiza, arratsaldea edota gaua erraz irudikatu ahal nitzakeela.

### Eta, guztia prest zenuenean, grabaketekin hasi zinen.

Bi asteburutan lortu nuen grabatzea. Ekoizpen, zuzendari, argiztapen lanak... guztia nik egin dut. Hori bai, zortzi teknikari izan ditut laguntzen. Dena den, oso gogorra izan da, 18-19 ordu grabatu baikenituen egunean. Ia lorik ez nuen egin egun horietan, guztia prestatu behar nuelako. Baina, ez

dira lau egun horiek soilik izan, sei hilabete bainaramatzen nik honetan lanean.

### Eta nola eutsi diozu azken hilabeteak eritmoari?

Hainbeste lan egitearen ondorioz, osasuna pixka bat arriskuan jarri dudala esan dezaket. Pentsa, psoriasis sortu zait gorputz osoan. Filma grabatzen ari nintzela beste lan batzuk atera zaizkit, eta urduri egon naiz, gainditurik, une batzuetan, eta horren ondorioz gaixotu naiz. Film bat lau egunetan grabatzea ia ezinezkoa da, baina gogo handia genuen, eta ondo prestatuta nuen guztia, bezaz, lortu genuen. Oso gustura geratu naiz, eta ea muntaketa egitean ere horrela geratzen naizen.

### Nortzuk osatu dute lan taldea?

Iruñean film labur bat grabatu nuen duela bi urte, eta hura egiteaz arduratu ziren teknikariek proposatu nien ideia, eta gustura onartu zuten. Aktoreak, berriz, *Parle vu euskara* antzezlanaren zuten leitzarrak daude batetik, eta, bestetik, Felix Arkarazo, Itziar Ituño eta Teresa Calo, eta baita nire aita eta ni.

### Noizko espero duzu filma prest izatea?

Sei hilabete inguru beharko nituela guztia bukatzeko aurreikusten nuen, baina orain ETBko *Yes we jai* saioarekin, Peru-Harri museoa egiten dudana lanarekin, harategiko lanarekin, *Goenkale*-rekin... hurrengo urteko

«Hainbeste lan egiteagatik, osasuna arriskuan jarri dut, psoriasis atera zait»

«Une honetan aktore lanarekin geratzen naiz, gainerako lanak albo batera utzi gabe»

apirilera arte-edo luzatuko dela uste dut. Nire bi eszena grabatu gabe ditut oraindik. Horietan ile luzearekin eta bizarrarekin nago, eta orain, berriz, ile motza eta bizarrak ez dut. *Goenkale*-rekin ile motzarekin egon behar dut urte osoan, beraz, nire eszena horiek atzeratu egingo dira. Baina, bitar-

tean, filmaren muntaketa egingo dugu, eta ondoren grabatuko ditut falta diren eszenak. Apirilera-ko izatea espero dut.

### Eta behin pelikula amaituta, nola zabalduko duzu?

Nire intenzioa ez da bideari begiratzea, baizik eta, niretzat filma bera egin ahal izatea izan da erronka. Nire eskuekin grabatu, eta gero muntaia ondo egitea da nire helburua, norbaitek ikusi eta ondo dagoela esatea. Filma ondo geratu dela eta Leitzako zinean eman dezakedala, ba primeran, eta ikastolatan emateko aukera dudala euskaraz delako, ba oso ondo. Baina, horretan ezin dut pentsatu oraindik, lan asko baita- go egiteko.

### Zuzendari ezetzik, ekoizle ere bazarela aipatu duzu. Filmaren aurrekontu osoaren kargu egin al zara?

Ekoizle naizen heinean, nik jarri dut diru guztia. Ez dut diru laguntzarik izan, aurreztuta nuena erabili dut.

### Zure inguruko bat baino gehiago utziko zenuen harriritua filmarekin kontatzen.

Bai. Lagunek eta mundu hau eza- gutzen ez dutenek erokeria egiten ari naizela esan didate. Ezagutzen dutenek, aldiz, animoak eman dizkidan eta zorterik onena opa didate.

### Zer nahiago duzu kameraren atzean ala aurrean lan egin?

Bi lanak gustatzen zaizkit, baina, oraindik ez dut denbora izan biak behar bezala gozatzeko. Pelikulan ez dut soilik zuzendari lana egin, lan asko egin ditut batera. Gustatzen zait hori, baina, nahiago dut gidoi bat hartu eta pertsona bat antzeztea. Une honetan, beraz, aktore lanarekin geratzen naiz, baina, gainerakoak albo batera utzi gabe.

### Filmaz gain beste proiektu ugari dituzu esku artean. Bizi garen garai zail honetan, ezin esan kezatzeko zaudenik, ezta?

Ezin naiteke kezatu lanera joateko deitzen baitidate, eta hori seinale ona da, eta gaur egun zorte handia. *Goenkale* telesaila, esaterako, kontratua berritu egin didate, beraz, oso gustura nago.

**Aita ere 'Goenkale'-n ari da. Zer diozu mundu honetan sartu izanaz?**  
Hasi nintzenez, aitari kosta egin



HITZA

zitzai onartzea, ez zuen uler- tzen. Baina, tira, lan handia egin dut, eta orain ikusten ari naiz fruitua ematen ari dela.

### Espainian ere lantxo batzuk egin dituzu.

Antzerki txiki bat egin nuen duela bi urte. Ondoren, Antena3 katetik deitu zidaten, antzezlanean ikusi nindutela eta *Doctor Mateo* tele-

sailerako behar zuten mutila nintzela esanez, eta parte hartze txiki bat egin nuen han. Esperientzia polita izan zen. Ni orain une honetan daukanarekin oso gustura nago, eta hori bizitu behar dut. Gainera, harakina naiz, eta zortzi urte daramatzat lanean. Bertan, nahiz Leitzan ikusten dut nere burua gaur egun.

Uda honetan **zatoz** HITZAren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau opari!

Harpidetu zure artea! Oinarrituta Surf Harpidetza. Surf taula jostaketa-erakundeak.

Hastapenaren zailak: 902-82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza

# Ereite berriro indarra hartzen ari da



Ate irekien jardunaldia egin berri du Ereiteak, eta bertan hainbat herrialdetako jakiak dastatzeko aukera izan zen. IGL

Zuzendaritza batzorde berri batek abian jarri du berriro Ereite elkarte; larunbaterako afaria antolatu dute

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Hiru urte inguruko geldialdiaren ondoren, Ereite elkarte kulturaren martxan jarri da berriro. Eskualde izaera du elkarteak eta Tolosa du egoitza, Tolosaldea Garatzenen ondoko eraikinean, 28 Kanalaren ondoan, eta Larramendi kalean ere bulegoa dute. Orain gutxi ate irekien jardunaldia antolatu zuten kideek eta larunbat honetarako afaria antolatu dute elkartearen.

Zuzendaritza batzorde berri bat osatu da, eta Rosalia Fierro da bertako lehendakaria eta Mateo Sanchez da lehendakariordea. «Ikusi genuen Ereite elkartearen eramatzen zuenarentzat lan handia zela, eta inguruan laguntzen ari zirenak beraien herrialdera joan behar izan zuten», azaldu du Fierrok, eta gaineratu: «Oraingo zuzendaritzan gaudenok garbi ikusten dugu lana banatu egin behar dugula elkarteak martxan jarraitzeko».

Ardura hori hartzeko arrazoietako bat, Fierrok azaldu duenez, elkartearen «oso gustura» sentitu direla izan da: «Oso une onak izan ditugu, eta triste iruditzen zitzaigun hori galtzea». Sanchezek gaineratu duenez, «Ereitearen jarduerara geldituta zegoen, baina ikusten genuen lokal eder bat zegoela, bulegoa ere bai, eta pena bat zela hori galtzea».



Ereite elkartearen zuzendaritza batzorde berriaren kideak, egoitzara joateko sarreran. HITZA

Egun zuzendaritzan daudenen zenbaitzuen artean hitz egiten hasi ziren, elkarte berriz martxan jartzeko. «Hasiera batean ez-kortasuna jarri zen agerian», dio Sanchezek, «aurretik ere hainbeste urtetan proba egin zela eta ez zuela emaitzarik eman. Baina niri baikorra izatea gustatzen zait, eta elkarteak martxan jarri behar genuela eta ikusiko genuela zer gertatzen zen. Ate irekien eguna egin genuen eta dagoeneko 36 bazkide daude elkartearen, eta badakigu jende gehiagok ere interesa duela elkartearen parte hartzeko».

Sanchezek gaineratu duenez,

«Ereite indartzen hasi da, eta elkarte kulturaren hitz egiten hainbat herrialdetako bazkideak ditugu, tartean Tolosaldekoak bertakoak». Larunbaterako afarian jende asko izango direla dio, eta hor ere bazkide izateko aukera izango dela.

## Kulturantzatasuna bultzatzea

Elkartearen helburuetako bat kulturantzatasuna bultzatzea da. Bestetik, eskualdera etortzen diren etorkinei laguntzea. Fierrok azaldu duenez, «jendeari elkartearen esaten diogu guk ez diogula paperik eman, baina bideratu ditzakegu horretan ari diren per-

sona eta elkarteengana». Elkartearen aurreko garaian ere bideratze hori egiten zutela eta horrekin ere jarraitu nahi dutela esan du.

Horrez gain, etorkinak ez daitezela bakarrik sentitu lortu nahi dute elkartetik. «Badago jendea etxe batean lana egin eta bizi direnak», dio Fierrok. «Asteburua iristen denean ez dakite nora joan, eta elkarteak duen egoitzak, hain justu, elkartzeko balio dezake».

Sanchezek beste helburu bat nabarmendu du: «Eskualdean daude hainbat jardueretan parte hartu nahi dugu, integrazioa bul-

tzatzeko. Ni, esaterako, oso onartua sentitzen naiz Tolosan». Erakundeekin harreman dutela azaldu dute, eta besteak beste, elkartearen bertan egiten ari den Nik ere Euskaraz Lanean ikastaroa alpatu dute, eta bertan zenbait kidek parte hartzen dutela diote. Banaiz Bagara elkarteak euskara ikasteko antolatzen duen mintzailagun egitasmoan ere hainbat kidek interesa agertu dutela gaineratu du Fierrok. «Kulturantzatasu-

**Elkarteak jada 36 bazkide ditu eta pertsona gehiagok azaldu dute interesa**

**Helburuetako bat integrazioa bultzatzea dela azaldu dute Ereiteko kideek**

na horixe da, kulturetara irekitzea», zehaztu du Sanchezek. Hala, elkartearen bitartez bertakoek ere beste herrialdeetan berri izan dezaketela diote.

Aurrera begira irekita daude jarduerak antolatzeko. Besteak beste, herrialde bakoitzeko sukaldaritza ikastaroak antolatzeko asmoa dute.

## Mexiko eta Hondurasko jakiak

Larunbaterako afarira irekia da; Ereiteko bazkide izan ala ez joan daiteke. Fierro mexikarra da izate eta Sanchez hondurastarra. Hain justu, bi herrialde horietako jakiak prestatuko dituzte lehen afari horretarako. Bazkideek bost euro ordaindu behar dituzte eta bazkideak ez direnak zortzi euro. «Batez ere ahoz ahokoak funtzionatzen du», dio Fierrok, baina, noski, Ereiteko zenbakira deitu daiteke, 685 75 05 61, edo [multiculturalereite@yahoo.es](mailto:multiculturalereite@yahoo.es) helbidera idatziz.

Elkartearen aurreko garaian ere afariak egiten ziren. Orduan emakumezkoek antolatzen eta parte hartzen zuten, eta emakumeen topaketa deitzen zioten. Aurrera begira emakumezkoentzat afariak antolatu nahi dituzte, edozeinentzat irekita dauden afariekin tartekatuz. Larunbaterako guztiarentzat antolatu dute, elkartearen lehenengo bultzada eman, elkarren artean ezagutu eta bazkide berriak egiteko.

Lehenengo afari horretan erabakiko da hurrengo noiz egingo den eta zeinek prestatuko duen. Afaria egunean bertan ordainduko da. «Prezio sinbolikoa da, gastuei aurre egiteko, eta gainera bistan da egoera ekonomikoa ez dela erraza», esan du Fierrok. «Garantziatsuen jendea gustura egotea da. Musika ere jarri ohi dugu, giroa sortzeko».



Villabonako Santio jaien lehen egunean erraldoi eta buruhandiak irten ziren kalera, atzo. A. IMAZ

## Txupinazoaren ondoren, Santio eguneko soka dantzaren txanda iritsi da

Zunbeltz elkarteak antolatu duen herri krosak irauten duen bitartean errepidea itxita egongo da

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Santio jaiak atzo hasi ziren Amasa-Villabonan, Malkar aisialdi taldekoek txupinazoa jaurtiki zutenean. Errebote plazan jendetza bildu zen, eta aisialdi taldekoen hitzen ondoren, txaranga lehen pieza jotzen hasi zen: «*Kalera, kalera borrokalaria kalera...*». Ez zen kasualitatea, izan ere, plazaren erdian espetxe bat zegoen, eta barnean, solidarioak. Hauek herriko presoak irudikatu zituzten, eta txarangaren doinuekin batera, espetxetik plazara irten ziren, eskutik helduta, dantzari. Euskal presoen aldeko toparen ondoren, buruhandiak eta erraldoiak mugimenduan hasi ziren, herri guztian barrena. Hauen aurretik, txikiak, korrika eta garrasika ibili

ziren, jaiak gozatzeko denbora ezin harturik. Baina hau, hasiera besterik ez da izan, aurretik, *zapiz* egun gelditzen dira. Urrutira joan gabe, gaur billabonatarrek Santio eguna ospatuko dute.

**XXXII. Herri Krosa, igandean** Zunbeltz Elkarteak antolatzen duen herri krosa hilaren 29an korrituko da. Antolatzaileek ibilbidearen eta ordutegien xehetasunak aurreratu nahi izan dituzte, hala eta guztiz ere, parte hartzeko egunean bertan eman behar da izena, edo [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean.

Korrikalariak irteera Zunbeltzen aurrean hartuko dute. Benjaminak 11:00etan irtengo dira, eta alebinak 11:15ean. Ondoren, gainontzeko mailakoak 11:30ean irtengo dira. Infantilek eta kadeetek 2,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, juniorrek 5 kilometrokoa eta nagusiek nahiz beteranoek 7,5 kilometrokoa.

Sarituak, kategoria bakoitzeko lehenengo gizonetako eta emakumezkoak izango dira. Antola-

### ↓ Egitaraua

#### UZTAILAK 25, GAUR

- **09:00.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **11:00.** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna, haurrentzat, kiroldegia-  
ren ondoan.
- **13:00.** Mariachi Azabache taldea, Txistulari plazan.
- **17:00.** Patata tortilla lehiaketa nerabeentzat, Txermingo ikastolaren azpian.
- **18:00.** Erraldoi eta buruhandiak, trikitalariek alaituta.
- **19:00.** Soka dantza, Malkar plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.
- **22:30.** Eresargi abesbatzaren emanaldia, Gurea antzokian.
- **23:00.** Kontzertu gaua, plazan, Blaka eta Gatibu taldeekin.

tzailak azaldu dutenez, lasterkerak irauten duen bitartean, ordu bat gutxi gorabehera, kaleak guztiz itxirik egongo dira auto, kamioi eta autobusentzat.

## Danok Danenakoek errebantxa hartu dute Zarautzen

Zarauzko Herria Txapelketan lehen hiru postuetan gelditu dira billabonatarrek, banakakoan

**A. Imaz** Villabona

Danok Danena taldeko pultsulariek ez dakite zer den amore ematea. Uztailak, Batis Kortajarena entrenatzailearen ikasgai hori argi eta garbi utzi du agerian. Hilaren hasieran, Donibane Lohitzunen lortutako emaitzak irauli zituzten Zarautzen Danok Danenakoek, errebantxa tarteko.

Uztailaren 7an VIII. Altxkadi Halterofilia Trofeoa jokatu zen Donibane Lohitzunen. Taldekako sailkapenean, billabonatarrek hirugarren postuan gelditu ziren, Frantzia Erdialdea eta Akitaniaren atzetik. Taldekakoan ez bezala, urrezko domina banakakoan

iritsi zen, Igor Sasiainen eskutik. Asier Gallegok laugarren amaitu zuen, eta Francisco Gonzalezek bosgarren. Emakumezkoetan, Goretti Amonarriz bosgarren sailkatu zen, eta Susana Davila seigarren.

Donibane Lohitzuneko emaitzek ezten lana egin zuten taldean, eta errebantxa Zarautzen hartu zuten Danok Danenakoek, uztailaren 14ean.

Zarauzko Herriaren Txapelketan, taldea ondorengo pultsulariek osatu zuten: Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez, Francisco Gonzalez, Jon Ander Iriarte, Jon Sasiain eta Paco Cruzek. Sailkapen orokorrean, billabonatarrek lehen postua lortu zuten, Akitania eta Zarautzen aurretik. Taldekako emaitza ona izan baldin bazen, banaka ez ziren hankamotz gelditu. Teddy Martinezek urrezko domina lortu zuen, zilarrezkoa Francisco Gonzalezek eta brontzezkoa Jon Sasiainek.



Zarauzko Herria Txapelketan Villabonako Danok Danena Halterofilia taldeko pultsulariak. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**ERAKUSKETAK**

■ **Tolosa.** Aranburu jauregian bi erakusketak ikusi daitezke, Donejakue bidearekin lotura dutenak: *Peregrinatio, argiaren bidetik* eta Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkaratek antolatutakoa bere 25. urteurrena dela eta. Era berean, Topic zentroan *Ni Pinotxo naizera* erakusketak ikusi daitezke, irailaren 23a arte. Ostiraletan eta larunbatetan bisita antzeztuak egingen dituzte alde zuzeneko izena emanda.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.  
 ■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Irudia Tolosa**



**UDAN ERE HIRUKIDE ESKOLA UMEZ BLAI**

Udako oporrak aurrera doaz, baina Tolosako Hirukide ikastetxea haurrez beterik dago. Aurtun 180 ikasle inguru animatu dira eskolak eskaintzen dituen Udaleku Irekietan parte hartzera. 3 eta 10 urte bitartekoek, goizak lagun artean dis-

frutatzeo aukera izan dute. Badira ere, ingelesa praktikatzera animatu direnak. Amaitzean dagoen hilean zehar, makina bat irteratan parte hartu dute gazteek eta eskolan bertan jardura ugari ere izan dituzte. HITZA

**Agurrak**

**AGURRAK**  
 943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
 urrezko ezteiak  
 ezkontzak  
 jaioberriak  
 jaunartzeak...

**agurrak**

**harpidedun izateak badu saria zozketa**

**1 Casa Julian**  
 Bi laguntzako bazkaria edo afaria  
 Santa Klara, 6 Tolosa  
 Tel.: 943-67 14 17  
[www.casajuliandetolosa.com](http://www.casajuliandetolosa.com)  
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

**2 Ostatu Hernialde jatetxea**  
 Bi laguntzako bazkaria edo afaria  
 Hernialde  
 Tel.: 943-65 24 96  
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

**3 Arbizu hestebeteak**  
 Sarta bat  
 Arbizu  
 Tel.: 948-46 06 28  
[www.embutidosarbizu.com](http://www.embutidosarbizu.com)  
[www.euskaltxokoplaza.com](http://www.euskaltxokoplaza.com)  
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

**4 Eureka! zientzia museoa**  
 Bi laguntzako bina sarrera  
 Mikeletegi, 43-45 Donostia  
 Tel.: 943-012478  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)  
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zereskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz) Aste honetako asturats, astelehen eta ostegun-gizonean, nahiz duzun ondoan. Sariazuzen irabazteko aukerarik gabe.

**TXOKOA hitza**